

**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

**2013ko APIRILAREN 11an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN  
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2013ko apirilaren 11an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.40 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola  
Aritz Usandizaga Larrañaga  
Imanol Aranzabal Lasa  
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

Bere ezin etorria azaltzen du: Karlos Irazu Muñoa, Jon Tejeria Otermin

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...


Alkate jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio:**
  - **2013ko martxoaren 14an egindako ohiko bilkura**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Zabaleta txiki bordako teilatua berritzeko obra baimena eskaera, A.M.U.**
- 4. Larrunbide baserrian terraza ixteko obra baimena, M.L.S.S.**
- 5. 2013 urterako Udal zerga-tasen hobari eskaeren onespena, hala bada.**
- 6. Aiztondo zerbitzuen mankomunitateari 2013ko 1. Eta 2. Hiruhilabetko ekarpenak burutzea, hala bada.**
- 7. Tolosaldeko komunikabideen bateratze prozesurako beharrezkoa den proiektua egiteko ekarpena burutzea, hala bada.**
- 8. Fakturak eta ordainketak.**
- 9. Beste batzuk.**
- 10. Erregu, galderak eta mozioak.**

.../...

**LEHENENGO PUNTUA**

**ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- 2013 urteko martxoaren 14ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

### **BIGARREN PUNTUA** **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik ez dituela ebazpenik eman, berri ematen du Idazkari-kontuhartzaile andreak.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

### **HIRUGARREN PUNTUA** **ZABALETA TXIKI BORDAKO TEILATUA BERRITZEKO OBRA BAIMENA ESKERA, A.M.U.**

Ikusirik A.M.U. andreak eginiko eskaera, non Zabaleta Txiki bordako teilatua konpontzeko obra baimena eskaera egiten duen. Horretarako aurrekontu bat aurkezten duelarik.

Ikusirik Larraulgo Arau subsidiarioen 48º artikuluan eraikinen kanpo itxuraren baldintzak finkatzen direla.

#### Artículo 48.- Condiciones de tratamiento exterior de las edificaciones.

-Con carácter general se evitará la utilización de materiales cuyo color, textura y formas de acabado difieran ostensiblemente de los utilizados en las construcciones rurales tradicionales de la zona.

-....


-Como material de cubierta se utilizará preferentemente la **teja cerámica**, autorizándose la utilización de otros materiales de coloración y textura similares.

Beraz, eskarian azaltzen diren lanak Larraulgo araudiarekin bat datoz.

Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENGOA.- A.M.U. andreak eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Larraulgo Zabaleta Txiki bordako teilatua eraberritzeko obra baimena eskaera onestu, betiere Udalbatza honek zehazten dituen baldintzak betetzen baditu.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.-Erabaki honen berri interesdunari ematea.

### **LAUGARREN PUNTUA**

#### **LARRUNBIDE BASERRIAN TERRAZA IXTEKO OBRA BAIMANA, M.L.S.S.**

Ikusirik M.L.S.S. andreak eginiko eskaera, non Larrunbide baserrian terraza ixteko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik 2013ko apirilaren 8an Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean dioena:

#### ***“LARRAULGO LARRUMBIDE BASERRIAREN TERRAZARI TEILATUA JARTZEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA***

*M.L.S.S. andreak, Larraulgo Larrumbide baserriaren terrazan teilatua jartzeko baimena eskatzen du, egin beharreko lanen aurrekontu orokor bat eta argazkiak aurkezten dituelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:***

*Teilatu berria, Larrumbide baserriko terraza lauak gaur egun urarekin dituen arazoei konponbidea emateko modu bezala planteatzen da.*


*Aurkeztutako eskarian, terrazaren teilatua, baserriaren itxura berdineko teilaz estalitako ohol eta egurrezko soliba eta zurtoinez osatua egongo dela esaten da.*

*Larraumbide baserria, Larraulgo lur ez hiritargarriaren barruan kokatua dago eta ez du katalogazio berezirik, beraz hirigintza-erregimen hiritargarriezina erabiliko da, bereziki 47º, 48º eta 66º artikulua.*

*Larraulgo Arau subsidiarioen 47º artikuluan eraikinen baldintzak arautzen dira, 48º artikuluan eraikinen kanpo itxuraren baldintzak eta 66º artikuluan baserrien zaharberritzearenak.*

#### **Artículo 47.-Condiciones de edificación.**

*-Las edificaciones se ajustaran en cuanto a su volumetría y configuración general a las tipologías edificatorias de las construcciones existentes en larraul. Responderán a una volumetría simple, con la cubierta inclinada a 2,3 o 4 aguas y **con pendientes no superiores al 35%.***



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

*-Emergiendo sobre dicha cubierta se autorizara la ejecución de chimeneas y otros instalaciones de altura no superior a 1,20mts.*

*-El perfil máximo de la edificación será de dos plantas sobre rasante, admitiéndose adicionalmente la construcción de sótanos y semisótanos-máximo de 1 planta bajo rasante-, así como el uso de los espacios resultantes bajo cubierta.*

*-La altura máxima de la edificación será de 7,5mts. En lo saleros dispuestos horizontalmente y de 9,5mts en la cumbre. En ambos casos esas medidas se tomarán a partir de cada uno de los puntos de contacto del edificio con el terreno. Estas limitaciones no serán aplicables a las construcciones e instalaciones destinadas a usos rurales que necesaria y justificadamente deban superarlas por requisitos funcionales.*

### Artículo 48.-Condiciones de tratamiento exterior de las edificaciones.

*-Con carácter general se evitará la utilización de materiales cuyo color, textura y formas de acabado difieran ostensiblemente de los utilizados en las construcciones rurales tradicionales de la zona.*

*-Como material de fachada se utilizará el revoco pintado y la piedra, prohibiéndose expresamente las terminaciones de bloque de hormigón visto y de ladrillo caravista, aunque la utilización de este último material se admitirá siempre que no supere el 25% de la superficie de cada fachada.*

*-Como material de cubierta se utilizará preferentemente la teja cerámica, autorizándose la utilización de otros materiales de coloración y textura similares.*

### Artículo 66.-Reforma y rehabilitación de los caseríos existentes.

*1.-Como criterio general, en cualquier obra de reforma y rehabilitación de los caseríos se deberán respetar las características fundamentales de los mismos.*

*2.-Obras que afecten a los elementos exteriores.*


*Se realizarán manteniendo el aspecto de terminación exterior del caserío primitivo en la composición de volúmenes, cubiertas, vuelos, huecos de fachada, etc.*

*Se mantendrán todos los elementos arquitectónicos o artísticos como escudos, dinteles, frentes de fachada, etc. De especial valor que el edificio pueda tener.*

*5.-Ampliaciones singulares del caserío primitivo.*

*Se podrán realizar obras de ampliación del caserío siempre y cuando los mismos queden adosados a él y no desdigan de la composición del edificio primitivo. La ocupación en planta de la ampliación más la superficie existente no podrá ser superior a 300m<sup>2</sup> (s).*

*Xabier Agirre eta Mikel Gargallo arkitektoek 1991-ean sinatutako "egiteko proiektuaren" arabera, Larrumbide baserriaren okupazioa 164,28m<sup>2</sup>-koa zen, eraikinaren azalera eraikigarri osoa 272,85m<sup>2</sup> izanik.*



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

*Planteatzen den teilatuak ez du baserriaren okupazioa aldatzen, baina bai azalera erabilgarria. Eraikinaren azalera erabilgarriari 13,01m<sup>2</sup> gehituko zaizkio.*

*Beraz, Larraulgo araudiak baserrien handitze lanak onartzen dituela ikusirik eta eskarian azaltzen diren lanak aurreko artikuluetara egokitzen badira, udal baimena ematea egokia iruditzen zait.*

*Dena den, lanak hasi aurretik, ondoko bizilagunaren baimena ekarri beharko da udaletxera.*

*Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

### ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- M.L.S.S. andreak eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Larraulgo Larrumbide baserriaren terrazari teilatua jartzeko obra baimena eskaera onestu, betiere Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean jasotzen diren baldintzak betetzen baditu, salbuespen honekin: ... ***lanak hasi aurretik, ondoko bizilagunaren baimena ekarri beharko da udaletxera.***

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.-Erabaki honen berri interesdunari ematea.

### **BOSTGARREN PUNTUA**


### **2013 URTERAKO UDAL ZERGA-TASEN HOBARI ESKAEREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik 2013 urterako Udal zerga-tasen hobari eskaerak egiteko 2013ko urtarrilaren 24tik otsailaren 15arte epea ireki zela, 4 eskaera egon direlarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengo

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Ondoren zerrendatzen diren 2013 urterako udal zerga-tasen hobari eskaerak onestea:



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- O.O.R.: IBI -famili ugaria.
- M.S.G.: IBI -famili ugaria.
- A.A.J. IBI –Eguzki plakak.
- I.O.D.: IBI –Eguzki plakak.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunei ematea.

### **SEIGARREN PUNTUA**

#### **AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2013KO 1. ETA 2. HIRUHILABETEKO EKARPENAK BURUTZEA, HALA BADA**

Ikusirik 2013ko martxoaren 25ean Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2013 ekitaldiko 1. eta 2. hiruhilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Larraulgo Udalak burutu beharreko ekarpena 13.000,00 eurokoa dela adierazten den.

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengo

#### **ERABAKITZEN DUTE**

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 13.000,00 eurotako ekarpena burutzea 2013 ekitaldiko 1. eta 2. hiruhilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko.

BIGARRENA.- 13.000,00 eurotako gastua onartzea.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA**


#### **TOLOSALDEKO KOMUNIKABIDEEN BATERATZE PROZESURAKO BEHARREZKOA DEN PROIEKTUA EGITEKO EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA**

Ikusirik Tolosaldeko komunikabideen bateratze prozesua aurkeztu dutela Tolosaldeko Udallerrii.

Ikusirik Tolosaldeko komunikabideen bateratze prozesua abian jartzeko, Tolosaldeko Udallerriek erabaki dutela lehenik proiektu bat egitea, proiektuaren kostua 20.560,32 eurotako delarik. Larraulgo Udalari 111,01 euroko kostua suposatuko zaielarik.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

#### **ERABAKITZEN DU**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENA.- Tolosaldeko Komunikabideen bateratze prozesurako beharrezkoa den proiektua egiteko 111,01 eurotako ekarpena burutu dadin onestea.

BIGARRENA.- Aipaturiko kostua onestea.

### **ZORTZIGARREN PUNTUA** **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

IZFE	196,18
JON TEJERIA	100,00
LIZARRA LAVANDERIA	72,60
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	3.529,55
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	265,92
AITZOL EUSKALTEGIA	40,60
GAS NATURAL FENOSA	47,34
GAS NATURAL FENOSA	154,01
GAS NATURAL FENOSA	514,25
GAS NATURAL FENOSA	535,41
GAS NATURAL FENOSA	346,40
GAS NATURAL FENOSA	169,79
GAS NATURAL FENOSA	480,44
GAS NATURAL FENOSA	48,93
GAS NATURAL FENOSA	193,47
EUSKALTEL	0,24
MOVISTAR	15,45
MOVISTAR	133,03
MOVISTAR	18,13
MOVISTAR	76,49
MOVISTAR	104,03

Udalbatzarrak **ahoko** batez hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **7.042,26** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

### **BEDERATZIGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

**9.1.BEOBIDE BURU BASERRIAN EGINDAKO OBRA GEHIGARRIEN ONESPENA, I.U.**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik 2013ko otsailaren 14an egindako Udalbatzarrak, I.U. jaunari, Beobide buru baserriko teilatua berritzeko obra baimena eman ziola.

Ikusirik I.U. jaunak Beobide buru baserriko teilatua berritzean beste hainbat obra burutu dituela, hauen aurrekontuak aurkeztu dituelarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: I.U. jaunari Beobide buru baserrian egindako obra gehigarrien baimena ematea. Aurkezturiko aurrekontuen arabera kitapena egin delarik.

### **HAMARGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 20.10 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA